

BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN SAILA

2365

AGINDUA, 2019ko apirilaren 30ekoa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baita osasunari buruzko ikerketa- eta garapen-proiektuetarako laguntzen 2019ko deialdia.

Osasun Sailaren eskumenetako bat da osasun-zientzien arloan ikerketa-jarduerak sustatzea eta planifikatzea, Euskadiko osasun-sistema etengabe garatu eta hobetzeko funtsezko elementua baita hori. Horri dagokionez, Euskadiko osasun-sistematzat hartuko da Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 5. artikuluan ezarritakoa.

Osasunari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Legeak, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeak, Ikerketa Biomedikoari buruzko uztailaren 3ko 14/2007 Legeak eta Zientziari, Teknologiarri eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legeak osasun-ikerketa sustatzeko erreferentzia-esparru bateratu bat eskaintzen dute, eta era eraginkorrago batean funtzionatzeko baldintzak ezartzen dituzte.

Esparru horretan, Osasun Arloko Ikerketa eta Berrikuntzarako 2020rako Estrategiaz hornitu da Osasun Saila. Estrategia hori 2013-2020 Osasun Planarekin batera doa, hots, osasun-sistemaren plangintza-tresna nagusiarekin. Tresna horren bidez ikerketa eta berrikuntza sustatzen dira eza-gutza-sortzaile gisa, zertarako eta osasuna eta osasun-sistemaren kalitatea, eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko; halaber, osasun-sistemak euskal berrikuntza-ekosisteman duen zeregina onartzen du eta, horrenbestez, xede bikoitza erakusten du: Euskal Autonomia Erkidegoan biozientzien eta osasunaren arloaren garapena sendotzen laguntzea; horretarako, I+G+b jarduerak instituzionalizatuko dira osasun-sisteman, eta enpresekiko eta beste eragile batzuekiko interakzioa bideratuko da, osasunean eta balio-sorkuntzan emaitzak hobetzeko.

Osasun Arloko Ikerketa eta Berrikuntzarako 2020rako Estrategiaren bidez ikerketa eta berrikuntza bultzatzeak lagundu egiten dio 2020rako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Planari («ZTBP 2020. Espezializazio adimentsuko estrategia. Research & Innovation Smart Specialisation Strategy – RIS3»); horixe da EAEko zientzia-, teknologia- eta berrikuntza-sistemaren gaur egungo esparrua, eta xede hau dauka: euskal gizartearen ongizatea, hazkuntza ekonomikoa eta enplegua hobetzea, espezializazio adimendunean oinarritutako berrikuntza-politikaren eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistemaren eraginkortasuna hobetzearen bidez. Halaber, lehentasunezko hiru arlo identifikatzen ditu, horien artean esparru biosanitarioa (biozientziak eta osasuna binomioa).

Deialdi hau Osasun Arloko Ikerketa eta Berrikuntza Estrategiaren (2020) barruan sartzen da, ZTBP 2020 eta RIS3 Euskadin, eta ardatz estrategikoetako birekin dago lotuta. Eraginaren ardatza dago batetik, zeinaren helburua I+G+b jardueren eragina handitzea den, herritarren osasuna hobetzeko eta aberastasuna sortzen laguntzeko; eta, bestetik, baliabideen ardatza dago, zeinaren helburua osasunaren arloan ikerketaren eta berrikuntzaren finantzaketa hobetzea den, bai barneko eta bai kanpoko baliabideen bitartez.

Agindu honetan adierazitako jarduerak helburu hauek dituzte: batetik, herritarren osasuna eta ongizatea hobetzen laguntzea, eta, bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoaren garapen sozioekonomikoari laguntzea, arlo biosanitarioan jakintza sortzen, zabaltzen edo aplikatzen lagunduz, translazio- eta elkarlan-ikuspegia duten ikerketa-proiektuen bidez, eta osasun-ikerketaren arloan txertatzen diren profesional-nodo berriak sustatuz.

Laguntza-deialdi honen xede diren lehentasunezko arloak prozesu patologikoei eta prozesu horien prebentzioari, detekzioari eta tratamenduari buruzko jakintzaren eta jakintza horren aplikazioaren esparruan daude; horretarako, besteak beste, doitasun-medikuntza pertsonalizatua erabiliko da, bai eta teknologia, produktu, zerbitzu eta prozesu berrien garapena eta aplikazioa ere, ikuspegi translazional batetik, ikerketako emaitzak pazienteengan aplikatu ahal izateko. Osasuna hobetzeko helburuaren barruan sartzen dira osasun-zerbitzuetako eta osasun publikoko ikerketak, eta kontuan hartzen dira interes sozial eta sanitario handia duten gaixotasunak, bai eta erikortasun anitzak eta prozesu kronikoek sorrarazitako gaixotasun-karga ere.

Ildo horiekin, deialdi berri hau biozientzien eta osasunaren arloan konfiguratu da, eta hiru laguntza-lerro ezberdin uztartu ditu arau bakarrean:

- Osasun-arloko ikerketa-jarduera sustatzeko I+G proiektuen bidez, osasun-sistemaren ahalmena indartzeko xedez, eta proiektu horiek osasun-sistemaren eta gizartearen eskakizunak hobeto asetzeko behar den ezagutza sortzen etaosatzen ematen duten laguntza sendotzeko asmoz.
- Osasuneko ikerketa estrategikoa bultzatzea, osasun-lidergotik, lankidetzatik eta EAeko gaitasun zientifiko-teknologikoetatik sortutako I+G proiektuen bidez; proiektu horiek produktu, prozesu eta zerbitzu berrien balorizazioan aurreratzea ahalbidetuko dute, RIS3 estrategiarekin batera.
- Interes bereziko ekintza osagarriak, RIS3ren helburuekin bat etorrira, biozientzien eta osasunaren esparruan, RIS3ren dinamika eta lankidetzak sendotzen duten eta proiektuen garapena eta emaitzen ustiapena errazten duten ekintzetan laguntza emanda.

Deialdi honen barruan 2019ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa dago; plan hori Osasuneko sailburuaren 2019ko martxoaren 5eko Aginduaren bidez onartu zen eta euskadi.eus egoitza elektronikokoan dago argitaratuta, iragarki-taulan: <https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>.

Kontuan hartu da hori guztia, bai eta honako arau hauek ere: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra (aurrerantzean, DLO) eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaz onartutako lege horren Erregelamendua (DEO), aplikatzeko oinarritzat jotzen diren manuei dagokienez; Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretua (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 1998ko urtarrilaren 19koa); Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren dirulaguntzen berme eta ordainketen erregimena arautzen duen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua, eta oro har aplikatu behar diren gainerako arauak. Beraz, hori dela eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da osasunari buruzko ikerketa eta garapenerako laguntzen 2019ko deialdiaren oinarriak ezartzea, publikotasunaren, gardentasunaren, konkurrentziaren, objektibotasunaren, berdintasunaren eta diskriminazio-ezaren printzipioei jarraikiz, bai eta laguntzok ematen dituen Administrazioak finkatutako helburuak betetzeko efikaziari eta baliabide publikoak esleitu eta erabiltzeko efizientziari erreparatuta ere.

Deialdi honen ondorioetarako, ikerketaren eta garapenaren jarduerak ez dira jarduera ekonomikotzat hartutako; beraz, bete egin beharko dira Ikerketa eta Garapenerako eta Berrikuntzarako estatu-laguntzei buruz Europako Erkidegoaren esparruan Europako Batzordeak ezarritako baldintzak (2014-06-27ko EBAO, C 198), 19. puntuak (ikerketa-organismoen eta ikerketa-azpiegituren jarduera primarioak, eta ezagutzen transferentziarako jarduerak). Horrenbestez, deialdi honetatik kanpo geratzen da jarduera ekonomikoaren finantzaketa, honela ulertuta:

a) I+G zerbitzuak eskaintzea, eta enpresen kontura egindako I+G.

b) Ikerketa-azpiegituren alokairua.

c) Jarduera ekonomiko guztiak, Ikerketa eta Garapenerako eta Berrikuntzarako estatu-laguntzei buruz Europako Erkidegoaren esparruan ezartzen baldintzak betetzen ez dituztenak (2014-06-27ko EBAO, C 198).

Munduko Medikuen Elkartearen Helsinkiko Adierazpenean ezarritako oinarrizko printzipioak (Gizakiengan egindako ikerketa medikoetarako printzipio etikoak) eta ikerketa medikoaren arloan indarrean dauden legeek ezarritako baldintzak errespetatuko dituzte ikerketa- eta garapen-proiektuek.

2. artikulua.– Helburua.

1.–Agindu honetan adierazitako jarduketan azken helburua da pertsonen osasuna eta osasun-sistemaren jarduera hobetzea, bai eta garapen sozioekonomikoari laguntzea ere, osasun-laguntza eta bizi-kalitatea hobetuko duten produktuak, zerbitzuak eta prozesuak garatzearen bidez. Helburu horiek lortzeko, deialdi honen bitartez hau lortu nahi da:

a) Orokorrean, euskal osasun-sistemaren ikerketarako gaitasuna sustatzea, eta, bereziki, garatzeko bidean dauden ikertzaileen parte-hartzea bultzatzea, eta, horretarako, ikertzaile nagusi gisa egiten dituzten eta alderatutako kalitatea daukaten lehenengo ikerketa-proiektuak finantzatzea.

b) Asistentzia-jarduerak egiten dituzten langileek I+G jardueretan parte har dezaten sustatzea, pazientei ezagutza helarazteko eta asistentzia-praktikatik hipotesiak sortzeko gaitasuna indartzeko, bai eta euskal osasun-sistemako langileen ibilbide-profesionalean ikerketaren alderdia bermatzeko ere.

c) Euskal osasun-sistemaren arloan ikerketa-gaitasunen koordinazioa bultzatzea, eta ikerketa-taldeen arteko sinergiak sustatzea; hala, masa kritikoak izatea eragozten duen zatikatzea gutxituko da, eta ikertzaileen jarduera helburu komunitaria bideratuko da, jardun klinikora eraman daitezkeen emaitzak lortzeko.

d) Askotariko arlo eta agenteetako ikerketa-taldeen arteko elkarlana (sektore, ardatz eta diziplina antzekoa) bultzatzea, beste modu batera lortzen zaila den ezagutza eskuratzeko eta emaitzak hobeto transferitzeko.

e) Sustatzea, batetik, ikerketa translazionala, eta, bestetik, gaixotasunen prebentzioa, diagnostikoa eta tratamendua hobetzeko behar den ezagutza zientifiko-teknikoa garatzeko, transferitzeko eta aplikatzeko jarduerak, bai eta osasun publikoaren eta osasun-zerbitzuen sustapen-jarduerak hobetzen dituztenak ere.

2.– Deialdi honetan, ikerketa biomedikorako proiektuak (oinarrizkoa, klinikoa, epidemiologikoa eta osasun publikokoa) eta osasun-zerbitzuetako ikerketarako proiektuak eta ekintza osagarriak finantzatuko dira. Proiektuetarako gai-arloak I. eranskinean daude jasota, baina, hori ez da eragozpena izango 6. artikuluan modu espezifikoan adierazitakorako.

3. artikulua.– Erakunde onuradunak.

1.– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarea (ZTBES) osatzen duten agente zientifiko-teknologikoak baino ezin daitezke izan agindu honetako laguntzen onuradunak, baldin eta, laguntzen eskabidea aurkezteko egunean, horretarako akreditatuta badaude, ekainaren 23ko 109/2015 Dekretuan, haren xedapen iragankorretan ezarritakoarekin bat etorritz (109/2015 Dekretuaren bidez, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarearen osaera arautu eta eguneratzen da).

2.– Publikotasunaren ondorioetarako, agente horiek Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko Eragileen Erregistroan identifikatuta daude, honako helbide hauetan:

- Gaztelaniaz: <https://apps.euskadi.eus/aa40paWebPublicaWar/webPublicaJSP/aa40painicio.do?idioma=es>
- Euskaraz: <https://apps.euskadi.eus/aa40paWebPublicaWar/webPublicaJSP/aa40painicio.do?idioma=eu>

3.– Agindu honen 6. artikuluan dago zehaztua Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko zer agente-kategoria zehatzek har dezakeen dirulaguntza proiektu-modalitate bakoitzean.

4.– Agenteek elkarlaneko proiektuak aurkez ditzakete; hau da, erakunde talde batek egindako proiektuak izan daitezke, erakunde horiek onuradunak izan zein ez (3. artikuluan honetan azaldu bezala), baina erakunde horiek beharrezkoak badira proiektua garatzeko eta bera garatzeko gaitasuna ere badaukate, DLOaren 11.3 artikuluan xedatutakoarekin bat.

4. artikulua.– Erakunde onuradunen betekizunak.

1.– Aurreko artikuluan aipatutako erakundeak onuradun izan daitezke, baldin eta deialdi hone-tan jasotako betekizunak betetzen badituzte.

2.– Agenteek Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarean (ZTBES) akreditatuta egon beharko dute agindu honetako laguntzen eskabideak aurkezteko epea hasten den egunean.

3.– Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 11.3 artikuluan eskatzen denarekin bat etorritz, agenteek agindu honetako laguntzak ematea dakarren jarduera egin beharko dute.

4.– Ezin izango dira agindu honetako laguntzen onuradun izan honako egoera hauetariko batean dauden agenteak:

a) Laguntza edo dirulaguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren epai irmo batez kondenatuak izan direnak, delitu hauetako bat egiteagatik: prebrikazioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoak bidegabe erabiltzea, eragimen-trafikoa, iruzurrak eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza-delituak.

b) Borondatezko konkurtsoa deklaratzeko eskaria egin dutenak, prozeduraren batean kaudi-mengabekotzat jota daudenak, hartzekodunen konkurtsoan deklaratuak daudenak, salbu eta horretan itun batek eragingarritasuna hartu badu, epailearen esku-hartzearen mende daudenak edo Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera desgaituta daudenak, konkurtsoa kalifikatzeko epaian finkatutako desgaitze-aldia amaitu gabe badago.

c) Administrazioarekin egindako edozein kontraturen amaiera irmoa eragitea, kausaren batean erudun deklaratu izateagatik.

d) Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateetako administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenak, honako lege hauetan jasotako kasuren batean badaude:

Estatuko Administrazio Orokorreko goi-kargudunen jarduna arautzen duen martxoaren 30eko 3/2015 Legea; Administrazio publikoen zerbitzura dauden langileen bateraezintasunen abendua-ren 26ko 53/1984 Legea (LBK, 1985, 14); edo Hauteskunde Erregimen Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan (LBK, 1985, 1463 eta LBK, 1986, 192) araututako kargu hautetsiak izatea, lege horretan edo gai horiek arautzen dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko arauak ezarritako baldintzetan.

e) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak –indarrean dauden xedapenek ezartzen dituztenak– ez izatea arauz zehazten den bezala beteta eta egunean.

f) Egoitza fiskala paradisu fiskaltzat hartutako lurralde edo herrialde batean izatea.

g) Dirulaguntzak itzultzeko obligazioak egunean ez izatea, erregelamenduz zehazten denarekin bat etorritz.

h) Ebazpen irmo baten bitartez galdurik izatea dirulaguntzak jasotzeko aukera, betiere bat etorritz lege honekin edo halakorik ezartzen duten beste batzuekin.

i) DLOaren 11.3 artikuluko bigarren paragrafoan aurreikusitako elkarteak ezin izango dira onuradunak izan, baldin eta elkartekideren bat aipatu diren debeku horietako baten mende badago.

j) Dirulaguntzak jasotzeko debekuek honako egoera hauetan dauden enpresei ere eragingo diete: zuzentzen dituzten pertsonak edo beste zirkunstantzia batzuk direla-eta, pentsa badaiteke pertsona edo zirkunstantzia horiek tarteko izan dituzten beste enpresa batzuen jarraipena edo hortik eratorriak direla –eraldaketa, bat-egite edo ondorengotzaren ondorioz–.

5.– Halaber, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50. artikuluko 5. apartatuarekin bat, ezin izango dira onuradunak izan sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik zigor administratibo edo penalen bat daukatena, ez eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legea dela bide debeku horrekin zigortutakoak ere, zigorrak ezarritako epean.

6.– Aurreko puntuetan zehaztu diren debekuen apreziazioari, justifikazioari, deklarazioari eta irismenari dagokienez, DLOaren 13. artikulua aplikatu da, oinarritzko legea da eta.

7.– Laguntza-eskabidea aurkeztearekin batera, agente eskatzaileak baimena ematen du organo emaileak zuzenean egiazta ditzan artikulua hauetan adierazitako inguruabarrak: dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamenduaren 18. artikulua (zerga-betebeharrak) eta 19. artikulua (Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak). Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartu zen erregelamendu hori.

Hala ere, agente eskatzaileak espresuki ukatu ahal izango du baimen hori, eta, hala eginez gero, ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren 22. artikuluko 1. puntutik 3.era bitartean adierazi bezala.

5. artikulua.– Ikerketa-taldearen betekizunak.

1.– Talde eskatzailetzat hartuko da Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko (ZTBES) agenteek osatutako taldea (3. artikuluaaren arabera onuradun diren agenteak, hain zuzen) eta, hala badagokio, baita onuradun ez diren beste erakunde batzuek osatutako taldeak ere, baldin eta ikerketa-proiektua proposatzen badute eta bera gauzatzen parte hartzen badute, horretarako, erakunde bakoitzak proiektuko lan-plangintzaren arabera hartzen dituen atazak garatuta.

2.– Diruz lagundu daitezkeen proiektuetan, Euskadiko osasun-sistemako ZTBESko agente batek, Osasun Ikerketako Institutuak eta I+G Antolamendu Sanitarioak izeneko kategorietan

akreditatutako batek, gutxienez, nahitaez hartu behar du parte (horri dagokionez, Euskadiko osasun-sistematzat hartuko da Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 5. artikuluan zehazten dena).

3.– Finantzaketa zenbait agentek eskatzen badute, proiektu bakoitzean parte hartzen duten agenteetako ikertzaile nagusietariko batek hartuko du bere gain proiektuaren koordinatzailearen izaera, eta bera izango da Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Zuzendaritzarekiko solaskidea.

4.– Eskabidea aurkeztu den unetik emakida-ebazpena eman arteko aldiari behintzat, talde eskatzaileetako kideek funtzionario-, estatutu- edo kontratu-lotura formalizatua izan beharko dute, agindu honen 3. artikuluan ezarritakoarekin bat, bai onuradun den ZTBESko agentearekin, bai proiektua egiteko zentroarekin, bai beste erakunde batzuekin, baldin eta agenteak indarreko hitzarmen bat badauka beste erakunde horiekin ikertzailearen lotura babesteko.

5.– Ikertzaile nagusiek, eginkizun horren pean, gehienez bi proiektutan hartu ahal izango dute parte, hartara eragotzi gabe 6. artikuluan xedatutakoa. Ikerketa-taldeko gainerako kideek ez dute mugarik izango proiektu desberdinetan parte hartzeko.

6. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen proiektuak.

1.– Osasun-arloko ikerketa-jarduera sustatzea: osasunari buruzko ikerketari laguntza emateko lerro honetan, onuradunak baino ezin izango dira izan Osasun Ikerketako Institutuak eta I+G Antolamendu Sanitarioak izeneko kategorietan akreditatutako ZTBESko agenteak, eta horiexek aurkeztu ahal izango dituzte 2019an hasi eta gehienez 36 hiletan garatzen diren proiektuak. Osasunari buruzko ikerketari laguntza emateko lerro honetan, ezin izango dute ikertzaile nagusi gisa parte hartu Osasun Sailaren 2017ko eta 2018ko deialdietako arribideko beste proiektu batzuetarako eginkizun horretan daudenek.

Lau proiektu-modalitate daude:

a) Garatzeko bidean dauden taldeen sustapena: proiektu hauek garatzen dituzten taldeetako ikertzaile nagusiak 1973an edo geroago jaioa izan behar du, eta aurretik ezin izan du parte hartu ikertzaile nagusi gisa, lehiaketa-deialdien bidez finantzatutako proiektuetan. Epea zenbatzeko, egoera hauek hartuko dira kontuan:

– Amatasunaren edo aitatasunaren ondorioz hartutako atsedenaldiak, Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean babestutakoekin bat. Seme-alaba bakoitzeko urtebete zabalduko da.

– Eskatzailearen gaixotasun edo istripu larria, medikuak hiru hileko edo gehiagoko baja emanda. Urtebete zabalduko da.

– Mendekotasuna duten pertsonen emandako arreta, hiru hileko tarte batekoa gutxienez, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean xedatutakoarekin bat. Urtebete zabalduko da.

Modalitate honetan, I. eranskineko gai-arloetariko edozeinetan garatzen diren ikerketa-proiektuei eman dakieke dirulaguntza.

Modalitate honetara gutxienez 200.000 euro bideratuko dira.

b) Osasun-zerbitzuetako ikerketa-proiektuak: osasun-politiken ebaluazio-arloetako proiektuak; prozesu eta emaitzen ebaluazioa; erabakiak hartzeko laguntza; antolamendu-ereduen garapena eta ebaluazioa. Modalitate honetan, osasun-zerbitzuetako ikerketaren n puntuan azaldutako azpiarlotariko edozeinetan (I. eranskina) garatzen diren ikerketa-proiektuei eman dakieke dirulaguntza.

Honako hauek interes berezia dute: osasun-integrazioari loturiko osasun-emaizten ebaluazioa, osasun komunitarioaren ereduari loturiko ikerketa, erizaintzako zainketei loturiko ikerketa, eta zainketa aringarriari loturiko ikerketa. Modalitate honetan, euskal osasun-sistemaren zenbait alderdi nahasi nahi dira, errazteko, hala badagokio, emaitzen eskalabilitatea eta hedapena, edo sistemako erabakiak hartzean duten erabilera.

Modalitate honetara gutxienez 600.000 euro bideratuko dira.

c) Proiektu biomedikoak: osasunari buruzko oinarrizko ikerketa-proiektuak, osasun-sistemaren barruan elkarlanean eginak. Proiektu hauek helburu nagusi hau izan behar dute: behatzen diren fenomeno eta gertakizunen oinarri-oinarrizko funtsei buruzko jakintza berriak eskuratzea, badauden gaitasun sanitarioak gehituta; edo osasuneko garapen teknologikoa, translazio-gaitasuna duten proiektuetarako kontzeptu-probak egiteko helburuarekin.

Modalitate honetan, I. eranskineko gai-arloetarako edozeinetan garatzen diren ikerketa-proiektuei eman dakieke dirulaguntza, osasun-zerbitzuetako ikerketari dagokion horretan izan ezik (n puntua).

Modalitate honetara gutxienez 300.000 euro bideratuko dira.

d) Osasun-proiektu integratua: Osasun Ikerketako Bioaraba, Biocruces Bizkaia eta Biodonostia institutuek hirurek elkarlanean egindako ikerketa-proiektu bakar bat finantzatuko da, proiektu hori interes komuneko arlo estrategikoetan egindakoa izango da, osasun-politekin bat etorri behar du eta institutu bakoitzaren ekarpena behar dela argi justifikatuta izan behar du; eta horretaz gain, masa kritiko baten edo indar diferentzialen sorreraren edo sendotzearen emaitza izan behar du, euskal osasun-sistema publikoaren barruko gaitasunak hobeto kohesionatze aldea. Salbuespenez, eta finantza erabilgarri nahiko badago, bigarren proiektu bat ere finantza daiteke.

Modalitate honetan, I. eranskineko gai-arloetarako edozeinetan garatzen diren ikerketa-proiektuei eman dakieke dirulaguntza, osasun-zerbitzuetako ikerketari dagokion horretan izan ezik (hala ere, modalitate horretan institutuarteko elkarlaneko proiektuak ere aurkez daitezke).

Modalitate honetara gutxienez 300.000 euro bideratuko dira, eta gehienez 600.000 euro.

Modalitatearen batean ezarritako gutxienezko helburuak ez bada, soberako kopurua gainerako modalitateari aplikatu ahal izango zaie, laguntza-lerro honen beraren barruan, laguntza-lerro honetarako 8. artikuluan adierazitako aurrekontu-zuzkidura osatu arte.

2.– Osasuneko ikerketa estrategikoa bultzatzea: laguntza-lerro hau ZTBESko agenteei ireki zaie, akreditatutako kategoria edozein izanda ere, eta euren proiektuak aurkezteko arloak hauek izango dira: gailu medikoak, medikuntza pertsonalizatua (doitasun-medikuntza eta analitika aurreratuko erremintak barnean hartuta), gaixotasun arraroak, eta neurozientzia-neuroteknologia. Proiektuak urtebete eta hiru urte arteko epean garatu ahal izango dira, baina laguntza urterokoa izango da eta 2019an egindako jardueretarako emango da. Bi modalitate daude:

a) Osasun-arloko funtsezko ikerketako elkarlan-proiektuak: ZTBESko hainbat agenteren artean lankidetzan eginak. Horien helburu nagusia izango da ezagutza berriak hartzea fenomeno eta ekintza behargarrien azpian dauden oinarriari buruz eta ezagutza-oinarria zabaltzea.

b) Osasun-arloko garapen teknologikoko proiektuak: jatorria osasun-sisteman daukaten proiektuak, dagoeneko egiaztatuta dauden aurreko esperientzietan oinarrituak, eta balio-katean aurrera egitera eta osasun-proiektuekin lotutako ezagutzaren balorizazioa bideratuak. Transferentzia-ahalmena erakusten duten emaitzetan edo aurretiazko esperientzietan oinarritutako garapeneko proiektuak izan daitezke, bai eta kontzeptu-probak ere, osasun-arloko teknologia

berritzaileak garatzeko proiektuak, edo teknologia sanitario garatu baten balidazio klinikoa edo teknologikoa behar duten proiektuak.

Modalitate honetan, ahal dela, Osasun Ikerketarako Institutuak eta I+G Antolamendu Sanitarioak kategorietan egiaztatutako ZTBESko agente batek koordinatuko ditu proiektuak.

Modalitate hauetara gutxienez 1.485.000 euro bideratzea aurreikusi da. Gutxienerako horretara heldu ezean, soberako kopurua ekintza osagarrien lerroan aplika daiteke (artikulu honen 3. apartatua) 8. artikuluan adierazitako aurrekontu-zuzkidura osatu arte, 3. laguntza-lerroarekin batera.

3.– Interes bereziko ekintza osagarriak: laguntza-lerro hau ZTBESko agenteei ireki zaie, akreditatutako kategoria edozein izanda ere; honen helburua da osasun-arloko ikerketari eta garapenari laguntza emateko ekintzak finantzatzea, ekintzok interes orokorrekoak izanik, eta RIS3ren jardueri eta helburuei lotuak, edo biozientzien-osasunaren arloko eta ekimen estrategikoen RIS3ren lantaldeen ekintza-planetan ezarritakoak. Laguntza urterokoa izango da eta 2019an egindako jardueretarako emango da. Lerro honetan modalitate bakarra dago, eta ekintza hauek sar daitezke:

– Elkarlanerako erremintak diseinatzeko eta mantenimendua egiteko laguntza, arlo hauetan: gailu medikoak, medikuntza pertsonalizatua, gaixotasun arraroak eta neurozientzia-neuroteknologia, ekimen estrategikoen arloan, negozio-ereduen esparruan, eta berrikuntza irekiko programetan. Barnean hartuta dago laguntza ematea plataforma edo partzuergo publiko-pribatuak sortu eta iraunarazteko, eta baterako lana egiteko prozesuak antolatzeke.

– Elkarlan zientifiko-teknologikoa eta enpresartekoa erraztera bideratutako jarduketak (I+G programak diseinatzea, balio-kateetako erakundeen arteko elkarlanari laguntza ematea eta living lab ezartzea edo sendotzea barnean hartuta), I+G+b proiektuak prestatzeko aholkuak eta diseinua, eskaintza-eskarietako bitartekaritza, eta dinamizatzeko, bultzatzeko eta animatzeko jarduerak.

– Prospektibako eta eskari goiztiarreko ikerketak egitea, bai eta ikerketen emaitzak eta berrikuntzarako ideiak transferitu eta ustiatzeari buruzko ikerketak edo txostenak ere (titulartasunaren eta babesaren alderdiak barnean hartuta), alderdi sozioekonomikoekin batera. Bideragarritasun-ikerketak ere barruan daude (30.000 euroko gehieneko finantzaketarekin), kontzeptu-probak edo proiektu pilotuak egin aurretik; izan ere, horietan lan hauek ere ordain daitezke: negozio-plana eta bera garatzeko finantza-beharrizanak zehaztea, eta merkatu-hobia eta osasun-sistemaren edo pazienteen beharrizanak identifikatzea.

– I+G+b nazioartekotzeko jardueretako parte-hartzea sustatzea, Europako deialdietarako proposamenen prestakuntza barnean hartuta.

– Zabalkundeko eta dibulgazioko jarduerak, batez ere Basque Health foroari eta Basque Health marka sendotu eta posizionatzeari loturikoak.

Modalitate honetara gutxienez 300.000 euro bideratzea aurreikusi da. Gutxienerako horretara heldu ezean, soberako kopurua osasuneko ikerketa estrategikoa bultzatzeko lerroan aplika daiteke (artikulu honen 2. apartatua) 8. artikuluan adierazitako aurrekontu-zuzkidura osatu arte, 2. laguntza-lerroarekin batera.

7. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak eta dirulaguntzekiko bateragarritasuna.

1.– Finantzatu daitezkeen gastuek zuzenean egon behar dute lotuta proiektua gauzatzearekin, eta alde aurretik sartuta egongo dira eskabidearen memorian.

2.– Honako hauek hartuko dira finantzatu daitezkeen gastutat:

a) Langileen kostuak (ikertzaileenak, teknikarienak eta ikerketan laguntzen duten gainerako langileenak), betiere proiektuan aritzen diren neurrian. Proiekturako behar diren langileen kontratazioa ere barruan dago. Langile horiek zentro kontratatzaileari aplikatzekoa zaion araudiaren arabera hautatuko dira, publikotasun-, konkurrentzia- eta lehiaketa-printzipioen arabera.

Halaber, ikerketa-taldeko partaide den osasun-langilea jarduera asistentzialetik liberatzeak dakartzan kostuak atal honetan daude sartuta, baldin eta proiektuan jarduteko liberatzen bada, eta betiere lanaldiaren % 50 gehienez ere.

Ez dira finantzatzekoak izango ZTBESko agenteei lotutako funtzionarioen, estatutupeko langileen edo langile kontratudunen kostuak –hala EAEko sektore publikokoak nola partaidetza publikoa nagusi den eta sektore publikoan edo inongo administrazioetan sartuta ez dauden erakundeetakoak–, baldin eta Eusko Jaurlaritzako beste sailen batek edo beste administrazio publiko batek finantzatzen baditu.

b) Ondasunak eskuratzeko eta zerbitzuak kontratatzeako gastuak. Proiektua egiteko erabili den material inbentariagarria, material suntsigarria eta gastu osagarriak ere sartzen dira, material bibliografikoa eta proiektuen emaitzak hedatu eta transferitzeak dakartzan gastuak. Proiektua gauzatzeko behar den heinean eta behar bezala justifikatzen bada, ez da mugarik egongo partida honetan.

Eta hauek kanpoan daude: altzariak eta instalazioak, kudeaketarako ekipamendu informatikoak eskuratzeko eta bulegoko material orokorra finantzatzea (fotokopiak, tonerra edo telefono-gastuak).

Proiektua garatzeko kanpoko zerbitzuak kontratatzea aurreikusiz gero, eskabidearen memorian aipatu beharko da, honako hauek zehaztuta: zerbitzuaren nolakotasuna eta kontratuaren kostua.

Azpikontratatu egin ahal izango dira proiektuko jarduerak, dirulaguntza jasotzen duen jardueraren parte direnak, baldin eta dirulaguntzaren onuraduna den agenteak egin ezin baditu (dena dela, egiaztatu egin beharko da hori proiektuaren memorian). Onuradunak azpikontratatuak jardueraren kostu osoa ezin izango da izan onuradun beraren aurrekontu finantzagarriaren % 50etik gorakoa izan, salbu eta 3. lerroa aurkeztutako proiektuetarako (Interes bereziko ekintza osagarriak); izan ere, azken horiek ez zaie muga hau ezarriko baldin eta argi justifikatzen bada azpikontratatu beharra.

Hirugarren batzuekin itundutako jardueretarako, jardueraren kostua dirulaguntzaren zenbatekoaren % 20tik gorakoa bada, eta zenbateko hori 60.000 eurotik gorakoa bada, agente onuradunak, kontratu hori egin aurretik, baimena eskatu beharko dio Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Zuzendaritzari. Zuzendaritza horrek 10 egun balioduneko gehieneko epean erantzungo du; bestela, eskaera ezetsizat hartuko da administrazio-isiltasunaren ondorioz.

Kontratazioetarako, diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoak gainditzen baditu sektore publikoaren kontratazioa arautzen duten legeetan kontratu txikietarako ezarritako kopuruak, agente onuradunak, kontratatu aurretik, hiru eskaintza gutxienez eskatu beharko ditu eta espresuki justifikatu beharko du hautaketa hori, memoria batean, ez bada proposamen ekonomikorik abantailatsuenaren arabera egiten. Justifikazioa eta memoria batera aurkeztu beharko dira.

c) Bidaia eta joan-etorri gastuak. Landa-lanak, koordinazio-bilereak eta kongresuek, hitzaldiek eta halakoek eragindakoak, baldin eta proiektuarekin zuzenean lotuta badaude.

d) Zeharkako kostuak: deialdi honen kargura kontzeptu honetan finantzatu ahal izango dira proiektua gauzatzeko zuzeneko kostuen % 21 gehienez ere.

3.– Agindu honen babespean ematen diren laguntzak bateratu ahal izango dira helburu bererako lortzen den beste edozein motatako laguntza edo dirulaguntzekin, baldin eta gainfinantzaketarik eragiten ez bada. Halakorik gertatuz gero, emandako dirulaguntza kasuan kasuko gehieneko mugaraino murriztuko da.

4.– Dena dela, ondorio horietarako, aplikatzekoak izango dira DLOaren 29. eta 31. artikulua eta DEOaren 68. eta 83. artikulua, oinarritzekoak baitira.

8. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

Deialdi hau finantzatzeko baliabide ekonomikoak Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-kredituetatik datoz, eta horien zenbatekoa 4.010.000 eurokoa da. Horietatik, 2.000.000 euro osasun-arloko ikerketa-jarduera sustatzeko lerroko proiektuak (6.1 artikulua) finantzatzera bideratuko dira; eta beste 2.010.000 euro, aldiz, lerro hauetako proiektuetara: osasuneko ikerketa estrategikoa bultzatzeko lerroa (6.2 artikulua), eta interes bereziko ekintza osagarrien lerroa (6.3 artikulua).

Artikulu honetan adierazitako zenbatekoa handitu ahal izango da, Osasun Sailaren programak gauzatu ostean geratzen diren aurrekontu-zuzkiduren arabera, indarreko legeek kredituak lotzeko edo aurrekontuak aldatzeko ezarritako araubideari jarraituz, eta ebazpena eman baino lehen. Halakorik gertatuz gero, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian emango da argitara, Osasuneko sailburuordearen ebazpen baten bidez.

9. artikulua.– Emateko prozedura.

Deialdi hau konkurtso-teknikaren bidez ebatziko da. Ondorio horietarako, laguntzak emateko orduan, 6. artikuluan ezarritako modalitate bakoitzerako aurkeztutako proiektuak alderatuko dira, 12. artikuluan ezarritako balorazio-irizpideei jarraituz euren arteko lehentasun-hurrenkera ezartzeko xedez, eta, hurrenkera horren arabera, laguntzak emango dira harik eta dirulaguntza-lerro bakoitzari esleitutako kredituak agortu arte.

II. KAPITULUA

KUDEATZEKO PROZEDURA

10. artikulua.– Eskabideak aurkezteko modua eta epea.

1.– Eskabide bakarra aurkeztuko da proiektu bakoitzeko. Proiektuan agente batek baino gehiagok parte hartzen badu, koordinatzaile gisa jarduten duen agenteak aurkeztuko du eskabidea.

2.– Agindu honetatik eratorritako eskabide, errekerimendu, jakinarazpen, zuzentze, justifikazio eta gainerako izapide guztiak elektronikoki gauzatuko dira, Administrazio Elektronikoen otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaren 28. artikuluekin (2012ko martxoaren 9ko EHAA, 50. zk.), Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluekin eta E-Administrazioarako Plataforma Teknologikoa –Platea– onartzen duen Informatika eta Telekomunikazioetako zuzendariaren 2006ko otsailaren 9ko Ebazpenarekin bat etorriz.

3.– Eskabidera iristeko eta bera betetzeko, euskadi.eus egoitza elektronikora jo beharko da, helbide hauetara:

Osasun-arloko ikerketa-jarduera sustatzea:

- Euskaraz:

http://www.euskadi.eus/diru_laguntza/2018/osasun_ikerketa_jarduerak_sustapena/

- Gaztelaniaz:

http://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2018/promocion_actividad_investigadora_salud/

Osasuneko ikerketa estrategikoa bultzatzea:

- Euskaraz:

http://www.euskadi.eus/diru_laguntza/2018/izaera_estrategikoko_ikerketa_bultzatzeko/

- Gaztelaniaz:

http://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2018/potenciacion_investigacion_salud/

Interes bereziko ekintza osagarriak:

- Euskaraz:

http://www.euskadi.eus/diru_laguntza/2018/interes_bereziko_ekintza_osagarriak/

- Gaztelaniaz:

http://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2018/acciones_complementarias_especial_interes/

Egoitza elektronikoan eskuragarri daude izapideak bide elektronikotik egiteko argibideak, eska-bideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako ereduak.

Eskabidea egin ondoren, espedientera iristeko eta errekerimenduak, jakinarazpenak eta agindu honetan inplikaturako gainerako izapideak egiteko, honako helbide honetara jo beharko da: <http://www.euskadi.eus/misgestiones/>

<http://www.euskadi.eus/nirekudeaketak/>

4.– Eskabidea betetzeko, erakunde edo pertsona eskatzailearen sinadura onartuaz gain, artiku-lu honek aipatzen dituen dokumentuak ere gehitu behar dira, Administrazio Elektronikoaren otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuan xedatutakoari jarraituz. Sinadura elektronikoaren data har-tuko da aurkezte-datatzat.

5.– Laguntza-eskabidea, eskatutako dokumentazioarekin batera, hautatzen den hizkuntza ofi-zialean aurkeztu ahal izango da. Halaber, laguntza-eskabidearen ondoriozko jardueretan, eta prozedurak irauten duen bitartean, erakunde eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Eus-kararen Erabilera Arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean xedatutakoa betez.

6.– Honako dokumentazio hau aurkeztu behar da, laguntza-eskabidea osatzen du eta:

I.– Osasun-arloko ikerketa-jarduera sustatzeko lerroan (6.1 artikulua) eta osasuneko ikerketa estrategikoa bultzatzeko lerroan (6.2 artikulua):

a) Ikerketa-proiektuaren memoria, eredu normalizatuan egina (II-A eranskina), parte hartzen duen agente bakoitzaren informazioarekin batera (II-B eta II-C eranskinak).

b) Ikerketa-taldeko kideen curriculum vitae-a, eredu normalizatuan egina (II-D eranskina), edo Carlos III.a Osasun Institutuko curriculum vitae-aren eredu, edo Zientzia eta Teknologiarako Espainiako Fundazioaren curriculum vitae-aren eredu normalizatueta.

c) Agente eskatzaile bakoitzaren erantzukizunpeko adierazpena, legezko ordezkariak sinatua (III. eranskina).

d) Jarduerarako betekizun gisa, eta ezaugarriak kontuan hartuta, legez ezarritako baimen edo txosten hauek izan beharko dituzte proiektuek:

- Etika-batzorde eskudunak emandako baimena, hala badagokio, eta ikerketa-arloko arauak eta hitzarmenak betetzen direla zaintzen duten kide anitzeko beste organo batzuek emandakoa. Edonola ere, kasuan kasuko kide anitzeko organoko lehendakaritzak edo idazkaritzak emango du baimen hori, eta, bertan, akordioa adostu zen bileraren aktaren erreferentzia jasoko da.

- Proiektuak giza jatorriko lagin biologikoak behar baditu, Euskal Biobankuaren ziurtagiria eskatu beharko da, eta horrela jasoko da.

Puntu honetan aipatutako dokumentuak agente onuradunen esku geratuko dira, hartara erago-tzi gabe dirulaguntza ematen duen organoak egin ditzakeen egiaztapenak, ezta eskumena duten kontrol-organoek egin ditzaketen egiaztapenak eta kontrolak ere, eta kontrol- eta egiaztapen-jar-duera horietan eskatzen zaien informazio guztia emango dute agente onuradunek.

II.– Interes bereziko ekintza osagarrien lerroan (6.3 artikulua):

a) Ikerketa-proiektuaren memoria, eredu normalizatuan egin (II-A eranskina), parte hartzen duen agente bakoitzaren informazioarekin batera (II-B eta II-C eranskinak).

b) Agente eskatzaile bakoitzaren erantzukizunpeko adierazpena, legezko ordezkariak sinatua (III. eranskina).

7.– Eskariak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

11. artikulua.– Eskabideko akatsak zuzentzea.

1.– Eskabidean, oinarri hauetako eskakizunak betetzen ez badira, osorik ez badago edo akatsik badauka, eskatzaileari errekerimendua egingo zaio, eta hamar eguneko epea eman, gabezia zuzendu edo nahitaezko agiriak aurkezteko. Halaber, ohartaraziko zaio ezen, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, aurretik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikulua araberako ebazpena emanda.

2.– Jakinarazpenak bitarteko elektronikoen bitartez egingo dira.

3.– Jakinarazpen-sistemak aukera emango du egiaztatzeke zer egunetan eta zer ordutan jarri zaion eskuragarri jakinarazpena jakinarazten den egintzako interesdunari, eta noiz iritsi den haren edukira; une horretatik aurrera jakinarazpena gauzatutzat joko da. Jasota baldin badago eskuragarri jarri dela, eta hamar egun natural igarotzen badira edukira iritsi gabe, jakinarazpenari uko egin zaiola ulertuko da eta, prozedurarik jarraikiz, izapidea egintzat joko da, salbu eta ofizioz edo hartzaileak eskatuta egiaztatzen bada teknikoki edo materialki irispidea ezinezkoa izan dela.

4.– Elkarlanean garatzekoak diren proiektuen kasuan, proiektuaren koordinatzailea den agentearekin gauzatuko da jarduketa hori.

12. artikulua.– Eskabideak ebaluatu eta hautatzea.

1.– Balorazio-batzordeak ebaluatu eta hautatuko ditu behar bezala aurkeztutako edo epean zuzendutako eskabideak, aurreko artikuluan xedatutakoarekin bat. Hauek osatuko dute balorazio-batzordea:

A) Batzordeburua: María Aguirre Rueda, Osasun Sailaren Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko zuzendaria.

B) Batzordeko kideak:

- Miguel Sánchez Fernández, Osasun Sailaren Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko zuzendaria.

- Andoni Arcelay Salazar, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko Laguntza Sanitarioko zuzendaria.

C) Idazkaria: Ainhoa Jausoro Zubiaga, Osasun Sailaren I+G laguntzen ardura duen teknikaria.

2.– Balorazio-batzordearen osaera izenduna aldatuz gero, aldaketa horiek argitaratu egingo dira euskadi.eus egoitza elektronikoan, 10.3 artikuluan adierazitako helbideetan; izan ere, interesdunei bermatu behar zaie batzordearen kideak errefusatzeko eskubidea, eta eraginkortasunez baliatze aukera, betiere Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluekin bat etorritz.

3.– Balorazio-batzordeak kanpoko ebaluatzaileen laguntza eskatuko dut kalitate zientifiko-teknikoaren parekako ebaluazioa egiteko osasun-arloko ikerketa-jarduera sustatzeko lerroan (6.1 artikulua) eta osasuneko ikerketa estrategikoa bultzatzeko lerroan (6.2 artikulua) aurkeztutako proiektuetan, artikulua honen I puntuaren 5. apartatuan ezarritako irizpideekin bat. Balorazio-batzordeak, bere eginkizunak gauzatzeko, aholkua eskatu ahal izango die adituei interes bereziko ekintza osagarrien lerroari buruzko gaiei buruz (6.3 artikulua).

4.– Balorazio-batzordeak bere funtzionamendu-arau propioak ezartzeko aukera izango du. Horiek xedatzen ez dituzten alderdiei dagokienez, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15. artikuluan eta hurrengoetan jasotakoa beteko du.

5.– Proiektuak hautatzeko, irizpide hauek aplikatuko dira:

I.– Osasun-arloko ikerketa-jarduera sustatzeko lerroa (6.1 artikulua) eta osasuneko ikerketa estrategikoa bultzatzeko lerroa (6.2 artikulua):

1) Kalitate zientifiko-teknikoa (gehienez 50 puntu).

a) Proposamenaren planteamendua eta bideragarritasuna (gehienez 35 puntu):

– Planteamenduko helburuen argitasuna eta egokitasuna (gehienez 5 puntu).

– Proiektuaren ekarpen zientifiko-teknikoa, egungo artearen egoerari, ikuspegiaren baliozkotasunari eta planteatutako metodologiari dagokienez (gehienez 10 puntu).

– Lan-planaren koherentzia eta eraginkortasuna, atazen egokitasuna eta zenbatetsitako aurrekontua (gehienez 10 puntu).

– Osasun-sistamarako duen aplikagarritasuna, erabilgarritasuna eta, hala badagokio, osasun-sisteman ezartzeko estrategia (gehienez 10 puntu).

b) Proiektuan parte hartzen duen gizataldearen kalitatea, kaudimena eta osagarritasuna (gehienez 10 puntu).

c) Genero-ikuspegia: 5 puntu gehiago, eskabideak genero-ikuspegiari esplizituki heltzen badio soilik.

Txosten zientifiko-teknikoan, 25 puntutik gorako puntuaziora heltzen ez diren eskabideak ez dira finantzagarritzat joko.

Modalitate bakoitzerako, finantzagarritzat jotzen diren eskabideen lehentasun-hurrenkera bat ezarriko da lortutako puntuazioaren arabera.

2) Osasun-arloko interesa eta interes estrategikoa (50 puntu gehienez):

i) Politiken araberako egokitasuna (5 puntu gehienez): proposamenaren egokitasuna bai osasun-politiken lan-ildoaren arabera bai ZTBP 2020an adierazitako espezializazio adimendunaren strategiaren arabera, biozientzien eta osasunaren esparruan. Irizpide honi dagokionez, 3 puntu edo gutxiago lortzen duten eskabideak ez dira finantzagarritzat joko.

ii) Proposamenean inbertitzeko aukera (20 puntu):

– Osasun-politika eta beharrianetarako garrantzitsua izateagatiko aukera: zer-nolako garrantzia daukan patologiak edo beharrianak, antolamendu-alderdiak, edo jasangarritasun-efektua (gehienez 10 puntu).

– Politika eta beharrian estrategikoetarako garrantzitsua izateagatiko aukera: elkarlana, zer-nolako gaitasuna duen lantaldeak erreferentzia-puntu zientifiko-teknologiko bihurtzeko, eta euskal lehiakortasunean laguntzeko (gehienez 10 puntu).

iii) Inpaktuak eragin dezakeen ekarpena eta proiektzioa (25 puntu): zelako emaitzak espero diren eta zelako inpaktua izan dezakeen aurreikusitako emaitzen aprobetxamenduak, osasun-sisteman, pazienteengan edo euskal gizarte- eta ekonomia-egituran aplikatzeko ahalmenari eta perspektiben arabera.

Orotariko puntuazioa lortzeko, kalitate zientifiko-teknikoari eta osasun-arloko interes eta interes estrategikoari dagozkien puntuazioak gehituko dira, beraz, gehieneko puntuazioa 100 puntukoa izango da.

II.– Interes bereziko ekintza osagarrien lerroa (6.3 artikulua):

1) RIS3ren politikekiko egokitasuna (gehienez 5 puntu): nola egokitzen den proposamena ZTBP 2020an adierazitako espezializazio adimendunaren strategiako lan-ildoetara, biozientzien eta osasunaren esparruan (gehienez 5 puntu). Irizpide honi dagokionez, 3 puntu edo gutxiago lortzen duten eskabideak ez dira finantzagarritzat joko.

2) Jarduera zientifiko-teknologikoarekiko osagarritasuna (gehienez 20 puntu): zer-nolako ekintza-aukerak dauden proposamenean definitutako arloetan eta zer-nolako ekarpenak egiten dituen biozientzien eta osasunaren arloko RIS3ren ekimen estrategikoetarako edo lantaldeek lortu nahi dituzten helburuetarako.

3) Proposamenaren kalitatea eta esperoko emaitzak (gehienez 25 puntu).

– Planteamenduaren argitasuna, lan-planaren koherentzia eta efikazia, eta aurrekontuaren egokitasuna proposatutako atazen eta helburuen arabera.

– Proposatutako jardueren bitartez espero diren emaitzen garrantzia (gehienez 5 puntu).

– Emaitzen aprobetxamendua RIS3ren strategiaren esparruan (gehienez 10 puntu).

Orotariko puntuazioa lortzeko, jarduera zientifiko-teknologikoarekiko osagarritasunari eta proposamenaren kalitateari eta esperoko emaitzei dagozkien puntuazioak gehituko dira, beraz, gehieneko puntuazioa 50 puntukoa izango da.

6.– Balorazio-batzordeak lortu diren azken puntuazioen arabera lehentasun-hurrenkera bat ezarriko du, 6. artikuluan azaldutako modalitate bakoitzerako, 12. artikuluan honen 5. puntuaren zehaztutako balorazio-irizpideei jarraikiz.

7.– Modalitate bakoitzean, haietarik bakoitzerako banatuta, balorazio-batzordeak honako hauek ezarriko ditu: zenbateko dirulaguntza eman behar den, proposamen bakoitzak lortu duen orotariko puntuazioaren arabera ordenatutako proiektu-zerrenda kontuan hartuta; finantzaketako zer ehuneko aplikatu behar den lortutako puntuazioaren arabera (ehuneko hori ezin izango da % 70etik beherakoa izan 1. eta 3. lerroetan, ezta % 40tik beherakoa ere 2. lerroan); modalitate bakoitzerako funtsetatik zein den esleitu beharreko gutxienekoa eta, hala badagokio, gehienekoa, 6. artikuluan ezarritakoaren arabera eta dauden baliabide ekonomikoen arabera.

8.– Emandako laguntzek eskatu den kopurua osorik edo partez estali ahal izango dute, baina, edozein modutan ere, baterako finantzaketa kontuan hartuta, ezin izango da inola ere gaintu diruz lagundutako jardueraren kostu erreala.

13. artikulua.– Ebazpena, jakinarazpena eta errekurtsioak.

1.– Aurkeztu diren eskabideak lerro bakoitzerako prozedura desberdin bat hartuta izapidetuko dira (6. artikuluan adierazitakoarekin bat), eta bakoitza bere ebazpenarekin amaituko da. Osasuneko sailburuordeari dagokio agente eskatzaileek proposatutako gai guztiak erabakitzeke ebazpenak ematea, balorazio-batzordeak proposatuta.

2.– Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuz jakinaraziko da; horretarako epea, gehienez ere, bost hilekoa izango da, agindu hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe hori igarota ez bada ebazpenik argitaratu, agente eskatzaileek ulertu ahal izango dute euren eskabidea ezetsi egin dela, DLOaren 25. artikuluan xedatutakoaren arabera, halaxe ezarrita baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 24.2 artikuluan.

3.– Ebazpenetan erabakiko da eskatutako dirulaguntzak ematen diren edo ukatzen diren. Ematen badira, honako hauek zehaztuko dira: agente onuraduna, diruz lagundutako proiektua, gehieneko exekuzio-epea eta emandako dirulaguntzaren zenbatekoa. Dirulaguntza ukatzen bada, zergatikoa azaldu beharko da.

4.– Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta 15 eguneko epean, agenteek espresuki uko egin ahal izango diote laguntzari. Aipatutako epean uko egiten dela adierazi ezean, deialdiaren ondorioetarako, laguntza onartu dela ulertuko da.

5.– Ebazpen honek ez du administrazio-bidea agortzen. Aurka egin nahi izatera, agente onuradunek gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango diote Osasuneko sailburuari, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, hilabeteko epean. Hori guztia Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluekin bat etorriz.

14. artikulua.– Agente onuradunen betebeharrak.

1.– Indarrean dagoen araudiak xedatzen dituen eta ezartzekoak diren beste betebeharrak batzuk eragotzi gabe, eta, batez ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei

buruzko Legearen testu bateginaren 50.2 artikuluan jasotako betebeharrak eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. eta 46. artikuluetan jasotakoak eragotzi gabe, agindu honetan ezarritako dirulaguntzen onuradun diren erakundeek honako betebeharrak dituzte:

- a) Dirulaguntza eman den xede eta kontzeptuetarako erabiltzea.
- b) Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, beren egitekoak betetzeko, deialdi honetako dirulaguntzen inguruan eskatzen dituzten argibideak ematea.
- c) Eskabidea egiteko orduan kontuan hartutako datu edo inguruabarretan edozein aldaketa gertatuz gero, ahal bezain laster jakinaraztea Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Zuzendaritzari.
- d) Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Zuzendaritzari jakinaraztea, ahal bezain laster, xede bererako beste dirulaguntza eta laguntza batzuk lortu dituztela, hala badagokio.
- e) Proiektuen emaitzen zabalkundea egitea.

2.– Eskabidean adierazitakoaren gainean aldaketaren bat egin nahi bada, aurrez eta arrazoituta eskatu beharko dio Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Zuzendaritzari. Deialdi honen ondorioetarako, laguntza-eskabidean aurreikusitako kontzeptuekiko gastu-desbideratzeak ez dira aldaketatzat jotzen, baldin eta % 20 gainditzen ez badute.

3.– Halaber, onuradunek neurriak hartu beharko dituzte diruz lagundutako jardueren finantza-ketaren izaera publikoaren zabalkundea egiteko, eta, orobat, kontabilitate-liburuak, eginbidetutako erregistroak eta gainerako dokumentuak –behar bezala ikuskatuak– eramateari dagokionez, bat etorri merkataritzako eta, hala badagokio, sektoreko legeek eskatutako zehaztapenekin, bai eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14., 18.4 eta 37.1 artikuluetan ezarritako gainerako betekizunekin ere; izan ere, lege hori oinarritzkoa da.

15. artikulua.– Laguntzen ordainketa, jarraipena eta justifikazioa.

1.– Dirulaguntzak urtebetekoak edo urte bat baino gehiagokoak izango dira, onartutako proiektuak duen iraupenaren arabera eta aurkeztutako laguntza-lerroak dituen ezaugarrien arabera, deialdi honen 6. artikuluan ezarritakoarekin bat. Dirulaguntza jaso dezaketen jardueren hasiera bat etorriko da 2019ko aurrekontu-ekitaldiarekin.

2.– Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Zuzendaritzak urteroko jarraipena egingo dio urte bateko baino gehiagoko proiektuen betetze-mailari, eta, horretarako, proiektuaren koordinatzaile diharduen agenteak aurkeztutako dokumentazioan oinarrituko da. Proiektuan parte hartzen duen agente onuradun bakoitzak aurkeztutako informazioa erabiliko da dokumentazio hori egiteko.

Dokumentazio hori memoria zientifiko bat izango da, IV-S eranskinean azaltzen den eskemari jarraituz egindakoa. Memoria zientifiko horretan, proiektua nola dagoen deskribatuko da, egindako jardueren azalpena egingo da, eta baita exekuzio ekonomikoari buruzko laburpena ere.

Memoria zientifikoak jarraipenaren urte naturalean (urtariletik abendura) eginiko jarduerak jasoko ditu, eta hurrengo urteko otsailaren 28a baino lehen aurkeztuko da. Azken ekitaldian ez da jarraipen-memoriarik egin beharko, horren ordez azken justifikazioa egingo baita.

Proiektuaren koordinatzaileak sinatuko du memoria.

3.– Elkarlaneko proiektuen agente onuradunek Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 30.6 artikuluan ezarritakoaren arabera egin beharko dute justifikazioa.

Proiektua amaitu eta hurrengo hiru hiletan –urtebetekoa zein urte gehiagokoa izan–, agente onuradunek agiri-justifikazio hau aurkeztu beharko dute:

i) Justifikazio-memoria zientifiko global bakar bat, proiektu bakoitzeko, IV-A eranskineko eskemaren arabera eginga. Memoria zientifikoak hauek zehaztuko ditu: eginiko jarduerak, planteatutako helburuen lorpen-maila edo aurrerapena, eta lortutako emaitzak. Proiektuaren koordinatzaileak sinatuko du memoria.

ii) Parte hartzen duen agente bakoitzaren justifikazio-memoria ekonomikoa (Excel), agente onuradun bakoitzaren legezko ordezkariak sinatua (IV-B eranskina). Memoria ekonomikorekin batera, fakturen kopiak aurkeztuko dira, eta, hala badagokio, ikertzaileek proiektuan sartutako orduen kostuaren ziurtagiria, justifikazio-epealdiko gastuak agiri bidez egiaztatzeko. Horretarako, egindako gastutzat hartuko dira justifikazio-epealdia amaitu aurretik egiazki ordaindu direnak. Jatorrizko fakturak agente onuradunean artxibatu beharko dira, gehienez ere bost urtean, justifikazio-epealditik kontatzen hasita, eta eskuragarri egongo dira Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Zuzendaritzak egiten duen edozein egiaztapenentarako.

4.– Laguntza zuzenean ordainduko zaie agente onuradunei, honela:

a) Osasun-arloko ikerketa-jarduera sustatzeko proiektuak, urtebetetik gorako iraupena dutenak:

i) Lehenengo urteari (2019) dagokion laguntzaren zenbatekoa berehala emango zaie agente onuradunei, laguntza onartu dela egiaztatu ondoren –onarpen hori espresua edo isilbidezkoa izan daiteke, 13.4 artikuluari jarraikiz–.

ii) 2020., 2021. eta 2022. urteetako ordainketa egingo da, hala badagokio, Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Zuzendaritzak proiektuaren jarraipen-memoria zientifikoa onartu eta gero (15. artikulua honen 2. puntuan aipatutakoa). Koordinatzaile diharduen agenteak urtero bidaliko dio memoria hori Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Zuzendaritzari, hurrengo urteko otsailaren 28a baino lehen. Azken urtekoaren ordainketa ez da izango ekitaldi horretarako emandako diru-laguntzaren % 100, baizik eta % 80. Gainerako % 20a baldintzapean geratuko da, eta azken agiri-justifikazioa entregatu eta onartu ondoren ordainduko da, 15. artikulua honen 3. puntuan ezarritakoaren arabera.

b) Osasun-arloko ikerketa-jarduera sustatzeko proiektuak, urtebeteko iraupena dutenak:

i) Emandako laguntzaren zenbatekoaren % 80 berehala transferituko zaie agente onuradunei, laguntza onartu dela egiaztatu ondoren –onarpen hori espresua edo isilbidezkoa izan daiteke, 13.4 artikuluari jarraikiz–.

ii) Gainerako % 20a azken justifikazio-dokumentazioa entregatu eta onartu ondoren ordainduko da –dokumentazioak egin den jarduera guztia jasoko du, IV-A eranskina (memoria zientifikorako) eta IV-B eranskina (memoria ekonomikorako) erabilia–, 15. artikulua honen 3. puntuan ezarritakoaren arabera. Amaierako memoriak (zientifikoa eta ekonomikoa) proiektua burutzeko epea amaitu eta hurrengo hiru hiletan aurkeztuko dira.

c) Osasuneko ikerketa estrategikoa bultzatzeko proiektuak:

i) Emandako laguntzaren zenbatekoaren % 80 berehala transferituko zaie agente onuradunei, laguntza onartu dela egiaztatu ondoren –onarpen hori espresua edo isilbidezkoa izan daiteke, 13.4 artikuluari jarraikiz–.

ii) Gainerako % 20a azken justifikazio-dokumentazioa entregatu eta onartu ondoren ordainduko da –dokumentazioak 2019ko ekitaldian egin den jarduera guztia jasoko du (abenduarien 31ra arte

eginiko gastuekin), IV-A eranskina (memoria zientifikorako) eta IV-B eranskina (memoria ekonomikorako) erabilia-, 15. artikulua honen 3. puntuaren arabera. Amaierako memoriak (zientifikoa eta ekonomikoa) 2020ko otsailaren 28a baino lehen aurkeztuko dira.

d) Interes bereziko ekintza osagarriak:

i) Emandako laguntzaren zenbatekoaren % 80 berehala transferituko zaie agente onuradunei, laguntza onartu dela egiaztatu ondoren –onarpen hori espresua edo isilbidezkoa izan daiteke, 13.4 artikuluari jarraikiz–.

ii) Gainerako % 20a azken justifikazio-dokumentazioa entregatu eta onartu ondoren ordainduko da –dokumentazioak 2019ko ekitaldian egin den jarduera guztia jasoko du (abenduarien 31ra arte eginiko gastuekin), IV-A eranskina (memoria zientifikorako) eta IV-B eranskina (memoria ekonomikorako) erabilia-, 15. artikulua honen 3. puntuaren arabera. Amaierako memoriak (zientifikoa eta ekonomikoa) 2020ko otsailaren 28a baino lehen aurkeztuko dira.

Onuradunei emandako funtsekin sortutako finantza-errendimenduek ez dute handiagotuko dirulaguntzaren zenbatekoa.

5.– Amaierako memoriekin batera, hala badagokio, hauen kopia bana aurkeztuko da: proiektua burutzearen ondorioz sortu diren argitalpenak, tesiak, karrera amaierako proiektuak, kongresuetan eginiko komunikazioak eta bestelako dokumentuak. Horietan guztietan, eta geroago sor litezkeenetan, espresuki aipatu behar da Osasun Sailak emandako laguntza. Ikerketaren emaitzak ahalik eta erabiltzaile gehienek ezagut ditzaten, Osasun Sailak finantzaturako proiektuei buruzko artikulua argitara emango dira, eta, horretarako, sarbide libreko aldizkariak erabiliko dira, bai eta argitaratu eta urtebetara eskuratzeko moduan egongo direla bermatzen dutenak ere.

6.– Halaber, amaierako memoriekin batera aurkeztuko da, hala badagokio, jardueren burutzapena dokumentatzen duten bestelako entregagaien kopia bat, zehazki interes bereziko ekintza osagarriei buruzkoak.

7.– Agente onuradunak ikusiko balu, justifikaturako arrazoiengatik, ezin duela finantzaturiko ikerketa-proiektua burutu, ahalik azkarren jakinarazi beharko dio Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Zuzendaritzari, eta proiektuaren garapen zientifikoaren egoerari buruzko txostena eta balantze ekonomikoa ere aurkeztu beharko dizkio.

8.– Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Zuzendaritzak, espedienteaz aztertu ondoren, Osasuneko sailburuordeari proposatuko dio dagokion laguntzaren likidazioa egiteko ebazpena eman dezala, eta zehatz dezala zer kopuru itzuli behar den, hala egin behar bada.

9.– Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Zuzendaritzak, komenigarria dela uste badu, proiektuari jarraipen hobea egiten lagunduko duen informazio osagarria aurkezteko eska dezake.

16. artikulua.– Dirulaguntzaren baldintzak aldatzea.

1.– Dirulaguntza ematerakoan kontuan hartutako edozein baldintza aldatzen bada, eta beste edozein erakunde publiko zein pribatutatik beste dirulaguntzaren bat aldi berean jasotzen bada, laguntzaren zenbatekoa aldatu ahal izango da. Ondorio horietarako, Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Zuzendaritzak izango du zenbatekoa murrizteko espedienteaz hasteko eta izapidetzeko eskumena, eta Osasuneko sailburuordeak horren gaineko ebazpena ematekoa.

2.– Proiektuaren garapen-prozesuan, gastu jakin batzuetara bideraturiko zenbateko partzial batzuetan aldaketak egitea beharrezkotzat jotzen bada –betiere, laguntzaren guztizkoa gaintitu gabe–, alde zuzenetik, proiektuko ikertzaile nagusiak idatziz egin beharko du eskabidea, horretarako arrazoiak emanez, eta agente onuradunaren legezko arduradunaren oniritziarekin. Deialdi

honen ondorioetarako, 14. artikuluan 4. apartatuan xedatutakoaren arabera, laguntza-eskabidean aurreikusitako kontzeptuekiko gastu-desbideratzea ez da aldaketatzat jotzen, baldin eta % 20 gainditzen ez badu.

Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Zuzendaritzari zuzenduko zaio eskabidea.

3.– Proiektuaren amaiera atzeratzen bada –agente onuradunaren borondatearekin zerikusirik ez duten eta behar bezala justifikatzen diren arrazoiengatik–, eta hasiera batean proiektua garatzeko ezarritako epea bukatu baino lehen idatziz eskatzen bada –zenbateko luzapena eskatzen den zehaztuta–, Osasuneko sailburuordeak proiektua amaitzeko epea luzatu ahal izango du. Luzapen hori ez da izango proiektua egiteko hasieran aurreikusi zen epearen iraupenaren erdia baino handiagoa, eta galdutako denborarekiko proportzionala izango da. Argitalpenei buruzko gastuak egikaritzeko luzapen-eskabideak ez dira aintzat hartuko.

17. artikulua.– Ez-betetzeak eta dirua itzultzea.

1.– Jasotako dirulaguntzak itzuli beharra ekarriko duten ez-betetzearen kausak honako hauek izango dira:

a) Emateko ebazpenaren baliorik eza, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 36. artikuluan xedatutakoaren arabera.

b) Laguntza lortzea hartarako eskatzen diren baldintzak faltsutuz.

c) Osorik edo partez ez betetzea ez helburua ez jarduera, ezta proiektua ere, edo ez hartzea dirulaguntza eman izanaren oinarrian dagoen jarrera.

d) Honako hauetan ezarritako bestelako kausak: Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 53.1 artikulua, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikulua, eta Dirulaguntzen Erregelamendu Orokorraren 91., 92. eta 93. artikulua.

2.– Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37.1 artikuluan –haren oinarritzko izaera dela-eta– eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoaren arabera (698/1991 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura ematen diren dirulaguntzen bermeen eta itzulketaren sistema arautzen duena), ez-betetzea dagoen kasuetan, laguntza eskuratzeko eskubidea galdu eta, hala badagokio, jasotako diru-zenbatekoak eta dirulaguntzen arloan aplikatu beharreko berandutze-interesa Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli behar zaizkiola ezarriko da, prozedurazko izapideak egin ondoren, egoki izan daitezkeen gainerako ekin-tzak eragotzi gabe.

Aipatutako diru-kopuru guztiak diru-sarrera publikotzat hartuko dira ondorio guztietarako. Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko zuzendariak izango du ez-betetzeagatik espedientea hasteko eta izapidetzeko eskumena, eta Osasuneko sailburuordeak hori ebaztekoa.

3.– Ez-betetzea dela-eta laguntza itzuli behar izanez gero, laguntza jaso duen agente onuraduna izango da erantzule Osasun Sailaren aurrean.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Bigarrena.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, interresdunek aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Osasuneko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo

egunetik aurrera; edo bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko dute, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean, ebazpena aipatutako aldizkari ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honetan aipatutako dirulaguntzak honako hauetan xedatutakoaren menpe egongo dira: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 30/2015 Legean; Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean; azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren VI. tituluaren eta VI. tituluaren III. kapituluaren; eta Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean eta horren erregelamendua onartu duen 887/2006 Errege Dekretuan jasotako oinarritzko araudian.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko apirilaren 30a.

Osasuneko sailburua,

MIREN NEKANE MURGA EIZAGAECHEVARRIA.

I. ERANSKINA

GAI-ARLOAK

- a) Doitasun-medikuntza pertsonalizatua.
- b) Gailu medikoak.
- c) Gaixotasun arraroak.
- d) Nerbio-sistema, gaixotasun neurologikoak eta osasun mentala (neurozientziak eta neuroteknologia).
- e) Minbizia.
- f) Gaixotasun kardiobaskularrak.
- g) Diabetesa, obesitatea eta gaixotasun endokrinoak.
- h) Giza garapena eta zahartzea.
- i) Gaixotasun infekziosoak.
- j) Arnasbideetako gaixotasunak.
- k) Lokomozio-aparatuko eta ehun konektiboko gaixotasunak.
- l) Gaixotasun hepatikoak eta digestiboak.
- m) Osasun publikoa eta lehen mailako arreta.
- n) Osasun-zerbitzuetako ikerketa:
 - 1) Osasun-politiken ebaluazioa:
 - Programak.
 - Aurrekontu-eragina.
 - Irisgarritasuna.
 - Ekitatea.
 - Osasuneko emaitzak.
 - 2) Prozesuaren eta emaitzen ebaluazioa:
 - Zerbitzuak, aldakortasuna eta egokitzapena.
 - Kalitatea, segurtasuna eta atxikidura.
 - Emaitza klinikoak (Patient Reported Outcomes).
 - Ekitatea, eraginkortasuna, efikazia, kostuen azterketa eta efizientzia.
 - 3) Erabakiak hartzen laguntzea:
 - Erabakiak hartzea.
 - Ahalduntzea.

- Ekitatea, eraginkortasuna, efikazia eta efizientzia.
- 4) Antolamendu-ereduak garatzea eta ebaluatzea:
 - Ereduak eta ibilbide klinikoak garatzea.
 - Proiektuak ezartzea eta hedatzea.
 - Garapen teknologikoak.

II-A ERANSKINA

PROIEKTUAREN MEMORIA, OSASUN SAILAK OSASUNARI
BURUZKO IKERKETA- ETA GARAPEN-PROIEKTUETARAKO EMATEN
DUEN LAGUNTZARAKO AURKEZTUA

Proiektuaren izenburua

AGENTE-KOORDINATZAILE ESKATZAILEA	
--	--

PROIEKTUAREN KOORDINATZAILEA

Abizenak		Izena	
Helbide elektronikoa			

ESPEDIENTE-ZENBAKIA

(Administrazioak betetzeko):

--

Aurkibidea

- 1.- Resumen del proyecto
- 2.- Antecedentes y estado del arte actual
- 3.- Enfoque y Metodología
- 4.- Plan de trabajo
- 5.- Descripción del consorcio y experiencia del equipo investigador
- 6.- Aplicabilidad, utilidad e impacto esperado
- 7.- Medidas para la explotación y difusión de los resultados
- 8.- Integración de la perspectiva de género
- 9.- Presupuesto y justificación de gastos

- | |
|---|
| <ol style="list-style-type: none">1) Dokumentu osorako letra-mota eta tamaina: Verdana 102) Gehieneko orrialde-kopurua (hala badagokio, II-B eta II-C eranskinetako taulak zenbatu gabe): 50 |
|---|

1.– Proiektuaren laburpena

- *Proiektuaren alderdirik garrantzitsuenak laburbildu behar dira, eta argi adierazi honako hauek:*
 - o *Aginduan adierazitako lehentasunekiko lerrokadura, osasun-politikak edo espezializazio adimendunekoak. Horietaz gain:*
 - *«Osasun-arloko ikerketa-jarduera sustatzea» izeneko 1. lerroan aurkeztutako eskabideetan, ahalegin handiago bat egin behar da proposamenaren politikak, programak edo ekimenak identifikatzeko.*
 - *«Osasuneko ikerketa estrategikoa bultzatzea» izeneko 2. lerroan eta «Interes bereziko ekintza osagarriak» izeneko 3. lerroan aurkeztutako eskabideetan, ahalegin handiago bat egin behar da identifikatzeko RIS3ren zer eremu edo arlo zehatzetara dauden lerrokatuta.*
 - o *Proiektuaren motibazioa eta helburuak.*
 - o *Proiektuaren pertinentzia, adierazita zer ekarpen egiten dien politikei eta nola erantzuten dien beharrei.*
 - *«Osasun-arloko ikerketa-jarduera sustatzea» izeneko 1. lerroan aurkeztutako eskabideetan, argi adierazi behar da zer-nolako interesa daukan osasun-sistamarako eta, hala badagokio, Euskadiko lehiakortasunerako (biozientzien eta osasunaren arloa garatzeko ekarpena)*
 - *«Osasuneko ikerketa estrategikoa bultzatzea» izeneko 2. lerroan aurkeztutako eskabideetan, argi adierazi behar da nola erantzuten dien proiektuak RIS3ren politika orokorrari, haren helburuei eta, oro har, Euskadiko lehiakortasunari.*
 - *«Interes bereziko ekintza osagarriak» izeneko 3. lerroan aurkeztutako eskabideetan, argi adierazi behar da nola erantzuten dion proposatutako jarduerak Euskadi RIS3ko lantaldeen beharrizan bati, biozientzien eta osasunaren arloan, edo nolako euskarria den pilotatze-taldeak identifikatutako zeharkako arloren edo ekimen estrategikoren baterako.*
 - o *Parte hartzen duten agenteen osagarritasun-maila.*

2.– Aurrekariak eta egungo artearen egoera

- *Kasu guztietan, argi adierazi behar da zergatik egin den eskabidea.*
 - o *1. eta 2. lerroetan aurkeztutako proiektuetarako (Osasun-arloko ikerketa-jarduera sustatzea eta Osasuneko ikerketa estrategikoa bultzatzea, hurrenez hurren), adierazi behar da proiektuaren izaera berritzailea eta, horretarako, proiektuaren ekarpen zientifiko-teknikoa adierazi (eta, hala badagokio, lehiakortasuneko edo posizionamendukoa) egungo artearen egoeraren aldean, eta bibliografia garrantzitsuenaren atala sartu.*
 - o *3. lerroan aurkeztutako proiektuetarako (Interes bereziko ekintza osagarriak), aurrerakinak eta egungo egoera azaldu behar dira, bai eta, hala badagokio, horretarako garrantzitsutzat jotzen den dokumentazioa ere.*

3.- Ikuspegia eta metodologia

- 1. eta 2. lerroetan aurkeztutako proiektuetarako (Osasun-arloko ikerketa-jarduera sustatzea eta Osasuneko ikerketa estrategikoa bultzatzea, hurrenez hurren), argi adierazi behar dira alderdi hauek:
 - o Hipotesiak, helburuak, azterketaren diseinua, subjektuak, aldagaiak, datuen bilketa eta analisia, azterketaren mugak eta gogoeta etikoak.
 - o Proiektuaren zein garapen-fasetan balora daitekeen proposatutako aurrerapena (ezagutzan, balorizazioan, produktu edo zerbitzu berrien garapenean, edo erabakiak hartzean).
 - o 3. lerroan aurkeztutako proiektuetarako (Interes bereziko ekintza osagarriak), puntu hau egokitu beharko da proposameneko kasuistikaren arabera.

4.- Lan-plana

- Deskribatu behar dira proiektua garatzeko etapak, atazen banaketa eta proiektua burutzeko nola antolatuko den; era berean, kronograma bat sartu ahal izango da proiektuaren faseak, atazak eta mugarri/entregagai garrantzitsuenak.

5.- Partzuergoaren deskribapena eta ikerketa-taldearen esperientzia

- Labur deskribatu behar da talde orokorra (parte hartzen duten agenteak), eta erakutsi behar dira partzuergoaren osagarritasuna eta agenteen arteko elkarlanak dakartzan abantailak. Argi azaldu behar da zer eginkizun daukan osasun-sistema zehatz bakoitzak.
 - o 1. eta 2. lerroetan aurkeztutako proiektuetarako (Osasun-arloko ikerketa-jarduera sustatzea eta Osasuneko ikerketa estrategikoa bultzatzea, hurrenez hurren), deskribatu behar da agente parte-hartzaile bakoitzaren ikerketa-taldearen esperientzia, barnean hartuta: proiektuak, argitalpen garrantzitsuak, eta bestelako emaitza batzuk (patenteak, etab.). Memoriarekin batera (II-A eranskina), ikerketa-taldeko kideen curriculum vitae-a sartuko da, Aginduaren 10.6. artikuluan adierazitako aukeren arabera hautatutako eredu normalizatuan, bai eta ikerketa-taldea osatzen duten pertsonen zerrenda ere, II-B eranskineko Excel orrian.
 - o 3. lerroan aurkeztutako proiektuetarako (Interes bereziko ekintza osagarriak), ez da ikerketa-taldeko kideen CVa sartu behar; baina, deskribatu behar dira: taldea, osagarritasuna eta kideen parte-hartzearen abantailak (nahiz eta finantzaketarik ez eskatu).

6.– Aplikagarritasuna, utilitatea eta espero den eragina

- *Kasu guztietan, proiektuaren kasuistikaren arabera egokituta, argi adierazi behar da zer emaitza aurreikusi diren eta zer eragin espero den, hauek kontuan hartuta:*
 - o *osasunaren hobekuntza, garrantzi kliniko-translazonala eta Euskadiko osasun-sistemaren funtzionamendua;*
 - o *produktu edo zerbitzu berriak garatzeko prozesuan izandako aurrerapena;*
 - o *berrikuntzarako euskal sistema indartzeko eta biozientzien eta osasunaren sektorea garatzeko, balioa sortzeko eta Euskadiko aberastasuna areagotzeko egiten duen ekarpena.*

7.– Emaitzak ustiatu eta zabaltzeko neurriak

- *Proiektutik espero den eragina bermatzeko aurreikusten diren neurriak definitu behar dira:*
 - o *Hauen sorrera: argitalpenak, transferentziako produktuak, patenteak edo komertzialki ustia daitezkeen bestelako emaitzak, osasun-sisteman ezar/eskala daitezkeen emaitzak (azken kasu horretan, deskribatu behar da zein den aplikagarritasun posiblearen prozesua osasun-sisteman, eta zer aukera dagoen proiektuaren emaitzak orokortzeko), eta entregagaiak zabaltzea RIS3ren sozializazio-esparruan.*

8.– Genero-ikuspegia sartzea

- *Labur azaldu behar da zer tratamendu emango zaion alderdi horri proiektuan.*

9.– Aurrekontua eta gastuak justifikatzea

- *Eskatutako laguntzaren kontzeptuak justifikatu behar dira. Agente eskatzaile bakoitzari dagokion informazio zehatza sartu behar da, eta, horretarako, **II-C eranskin**eko Excel orria bete behar da, eta memoriari erantsi (II-A eranskina).*
- *Zehaztu behar da ea beste laguntzarik eskatu edo eskuratu den proiektua edo proiektuaren zati bat garatzeko.*

2019ko maiatzaren 20a, astelehena

II-B ERANSKINA

AGENTE ESKATZAILEAREN IKERKETA-TALDEA

PROIEKTUAREN IZENBURUA	
ESPEDIENTE-ZENBAKIA (Administrazioak betetzeko):	

Agente eskatzailea					
Zer zentrotan gauzatuko den (agente eskatzailea ez bada)					
Izena (Ikertzaile nagusia lehen errenkadan)	1. abizena	2. abizena	NAN (letrarekin, zuriune eta zeinurik gabe)	Lanpostua	Titulazioa

Ikertzaile nagusiaren sinadura

--

2019ko maiatzaren 20a, astelehena

II-C ERANSKINA

AGENTE ESKATZAILEAREN MEMORIA EKONOMIKOA

(Bete eremu zuriak bakarrik)

PROIEKTUAREN IZENBURUA	
ESPEDIENTE-ZENBAKIA (Administrazioak betetzeko)	

Agente eskatzailearen identifikazioa	
Agente eskatzailearen izena	
Zehaztu erakunde koordinatzailea edo parte-hartzailea den	

Aurrekontua eta eskatutako laguntza
--




1) Agentearen proiektuaren aurrekontu osoa					
	Zenbatekoa				
Gastu-kontzeptua	2019	2020	2021	2022	GUZTIR.
Langileak	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	
Ondasunak eta zerbitzuak	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	
Bidaiak eta joan-etorriak	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	
Zeharkako kostuak	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	
Agentearen proiektuaren aurrekontu osoa	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	

2) Agenteari eskatutako laguntza					
	Zenbatekoa				
Gastu-kontzeptua	2019	2020	2021	2021	GUZTIR.
Langileak	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	
Ondasunak eta zerbitzuak	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	
Bidaiak eta joan-etorriak	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	
Zeharkako kostuak	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	
Agenteari eskatutako laguntza	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	

Sinadura: Agenteari legezko ordezkaria

II-D ERANSKINA

OSASUNARI BURUZKO IKERKETA- ETA GARAPEN-PROIEKTUETARAKO
CURRICULUM VITAE NORMALIZATUA

Abizenak				Izena			
NAN				Jaiotza-data	/	/	uu/hh/ee
Helbide partikularra							
Hiria				PK			
				@			
Prestakuntza akademikoa							
Lizentzia							
Zentroa							
Data	/	/	uu/hh/ee	Data	/	/	uu/hh/ee
Doktoregoa							
Zentroa							
Data	/	/	uu/hh/ee	Data	/	/	uu/hh/ee
Egungo egoera profesionala							
	Kontratua						
	Langile-multzoa		Lanaldi osoko arduraldia				
	Bitartekoa						
	Bekaduna		Arduraldi partziala				
	Bestelakoak						
Organismoa							
Zentroa/Fakultatea/Eskola/Institutua							
Dept./sekz./unitate estr.							
Helbidea							
							

Aurreko jarduera zientifiko edo profesionalak		
Data	/ /	uu/hh/ee
Postua		
Erakundea		
Data	/ /	uu/hh/ee
Postua		
Erakundea		
Data	/ /	uu/hh/ee
Postua		
Erakundea		
Betetze-data	/ /	Sinadura

Curriculum vitae normalizatua: datu pertsonalak

**OSASUNARI BURUZKO IKERKETA- ETA GARAPEN-PROIEKTUETARAKO CURRICULUM VITAE
NORMALIZATUA**

Izena			
Azken sei urteotan pareka ebaluatutako argitalpenen aukeraketa, kronologikoki ordenatua (adierazi argitaratutakoak bakarrik). Ez sartu ez argitalpenen laburpenik ez kongresuetako ponentziarik)			
Egileak (sinaduren arabera ordenaturik)			
Izenburua			
Aldizkaria			
Argitalpen-data	/	/	uu/hh/ee

Curriculum vitae normalizatua: argitalpenak

**OSASUNARI BURUZKO IKERKETA- ETA GARAPEN-PROIEKTUETARAKO CURRICULUM VITAE
NORMALIZATUA**

Izena	
<p>Ikerketa-proiektuak (Agentzia publiko edo pribatuek finantzaturik, azken sei urteotan parte hartutako proiektuen zerrenda –bukatuak edo abian direnak–. Adierazi labur proiektuaren helburu nagusiak: ikertzaile nagusia, laguntzailea, etab.)</p>	

Curriculum vitae normalizatua: proiektuak

**OSASUNARI BURUZKO IKERKETA- ETA GARAPEN-PROIEKTUETARAKO
CURRICULUM VITAE NORMALIZATUA**

Izena	
Patenteak eta utilitate-modeloak (ustiatzen daudenak)	
Egileak (sinaduren arabera ordenaturik)	
Izenburua	
Erregistro-zenbakia	
Erakunde titularra	
Herrialdeak	

Curriculum vitae normalizatua: patenteak

III. ERANSKINA: AGENTE ESKATZAILEAREN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

..... jaunak/andreak,
..... NANaren jabeak,
..... IFZa daukan
..... agentearen legezko ordezkaria den aldetik,

HAU ADIERAZTEN DU:

Agente horrek bete egiten ditu osasunari buruzko ikerketa- eta garapen-proiektuetarako laguntzen 2019ko deialdia arautzen duen Aginduaren 3. eta 4. artikuluetan ezarritako betekizunak eta deskribatutako obligazioak, eta ez dauka agindu horretako laguntzak eskuratzea eragozten dion inolako inguruabarririk. Horrenbestez, espresuki adierazten du hau:

- Egunean dauzka zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.
- Egunean dauzka dirulaguntzen itzulketaren ziozko betebeharrak.
- Ez dago DLOaren 13.2 eta 3 artikuluan ezarritako inguruabarretako batean ere.
- Ez dauka administrazio- edo zigor-zehapenik, laguntza edo dirulaguntza publikoak lortzeko aukera kentzen dionik, eta ez dauka laguntza horiek jasotzeko legezko debekurik.

Halaber, agentea bada itzultze- edo zehapen-prozeduraren baten pean dagoena, hau da, agentea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, haren erakunde autonomoek eta Zuzenbide pribatuko erakunde publikoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidetzen ari den edo amaituta dagoen itzultze- edo zehapen-prozeduraren baten pean badago, adierazi zein diren prozedura horiek.

.....
.....
.....

(e)n, 2019ko
(Legezko ordezkariaren sinadura)

aren

(e)(a)n.

Izpta.:

IV-A ERANSKINA**OSASUNARI BURUZKO IKERKETA- ETA GARAPEN-
PROIEKTUAREN JUSTIFIKAZIO-MEMORIA ZIENTIFIKOA**

Proiektuaren izenburua

AGENTE-KOORDINATZAILE ONURADUNA	
--	--

PROIEKTUAREN KOORDINATZAILEA

Abizenak		Izena	
Helbide elektronikoa			

Espediente-zenbakia		Emandako zenbatekoa	
----------------------------	--	----------------------------	--

Aurkibidea

- 1.- Resumen de la actividad ejecutada
- 2.- Impacto, explotación y difusión de resultados
- 3.- Presupuesto y justificación de gastos

1 .– Gauzatutako jardueraren laburpena

- *Proiektuaren alderdirik garrantzitsuenak laburbildu behar dira, hauek barnean hartuta:*
 - o *Jarritako helburuak*
 - o *Egindako atazen deskribapena, eta, hala badagokio, adierazita zer aldaketa egin den aurreikusitako lan-planari dagokionez*
 - o *Lortutako emaitzak, eta jarritako helburuak noraino bete diren, eta, hala badagokio, lortutako eragin-motaren deskribapena.*
 - o *Ondorioak*

2 .– Emaitzen eragina, ustiapena eta zabalkundea

- *Identifikatu behar dira zabalkunderako, transferentziarako edo ustiapenerako produktu edo neurriak: artikulua, patenteen sorrera eta beste batzuk (lortutakoak edo prestatzen ari direnak). Artikuluen separatak edo beste erreferentzia garrantzitsu batzuk sartu behar dira; helbide elektronikoetarako estekak ere onartuko dira.*
- *Deskribatu behar da zer eragin sortu den edo espero zen eraginean izan diren aurrerapenak, honako alderdi hauei dagokienez: osasunaren hobekuntza eta Euskadiko osasun-sistemaren funtzionamenduaren hobekuntza, edo biozientzien eta osasunaren sektorearen garapena, balioa sortzea eta Euskadiko aberastasunari egiten dion ekarpena.*

3 .– Aurrekontua eta gastuak justifikatzea

- *Eskatutako laguntzaren kontzeptuak justifikatu behar dira. Erakunde onuradun bakoitzerako informazio zehatza sartu behar da, memoria ekonomikoa osatzeko, **IV-B eranskin**eko Excel orrian.*

Lekua eta data

Izpta.: Proiektuaren koordinatzailea

IV-B ERANSKINA

AGENTE ONURADUNAREN MEMORIA EKONOMIKOA

(Bete eremu zuriak bakarrik)

PROIEKTUAREN IZENBURUA	
ESPEDIENTE-ZENBAKIA	

Agente onuradunaren identifikazioa	
Agente onuradunaren izena	
Zer zentrotan gauzatuko den (agente onuraduna ez bada)	

1) Emandako aurrekontua

Gastu-kontzeptua	Zenbatekoa				
	2019	2020	2021	2022	GUZTIRA
Langileak	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €
Ondasunak eta zerbitzuak	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €
Bidaiak eta joan-etorriak	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €
Zeharkako kostuak	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €
Emandako aurrekontua, guztira	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €

2) Justifikatutako aurrekontua

Gastu-kontzeptua	Zenbatekoa				
	2019	2020	2021	2021	GUZTIRA
Langileak	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €
Ondasunak eta zerbitzuak	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €
Bidaiak eta joan-etorriak	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €
Zeharkako kostuak	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €
Justifikatutako aurrekontua, guztira	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €

Sinadura: Agentearen legezko ordezkaria

IV-S ERANSKINA**OSASUNARI BURUZKO IKERKETA- ETA GARAPEN-
PROIEKTUAREN JARRAIPEN-MEMORIA ZIENTIFIKOA**

Hautatu

1. 2019ari dagokion bitarteko memoria.

2. 2020ari dagokion bitarteko memoria.

3. 2021ari dagokion bitarteko memoria.

Proiektuaren izenburua

AGENTE-ONURADUN KOORDINATZAILEA	
--	--

PROIEKTUAREN KOORDINATZAILEA

Abizenak	Izena
Helbide elektronikoa	

Espediente-zenbakia		Emandako zenbatekoa	
---------------------	--	---------------------	--

Aurkibidea

- 1.- Resumen de la actividad ejecutada
- 2.- Impacto, explotación y difusión de resultados
- 3.- Presupuesto y resumen de ejecución económica
 - 3.1.- Descripción de la ejecución económica
 - 3.2.- Tabla Resumen

1 .– Gauzatutako jardueraren laburpena

- *Proiektuaren alderdirik garrantzitsuenak laburbildu behar dira, hauek barnean hartuta:*
 - o *Jarritako helburuak*
 - o *Egindako atazen deskribapena, eta, hala badagokio, adierazita zer aldaketa egin den aurreikusitako lan-planari dagokionez*
 - o *Egunera arte lortutako emaitzak, eta jarritako helburuak noraino bete diren, eta, hala badagokio, lortutako eragin-motaren deskribapena.*
 - o *Ondorioak*

2 .– Emaitzen eragina, ustiapena eta zabalkundea

- *Identifikatu behar dira zabalkunderako, transferentziarako edo ustiapenerako produktu edo neurriak: artikulua, patenteen sorrera eta beste batzuk (lortutakoak edo prestatzen ari direnak). Artikuluen separatak edo beste erreferentzia garrantzitsu batzuk sartu behar dira; helbide elektronikoetarako estekak ere onartuko dira.*
- *Deskribatu behar da zer eragin sortu den edo espero zen eraginean izan diren aurrerapenak, honako alderdi hauei dagokienez: osasunaren hobekuntza eta Euskadiko osasun-sistemaren funtzionamenduaren hobekuntza, edo biozientzien eta osasunaren sektorearen garapena, balioa sortzea eta Euskadiko aberastasunari egiten dion ekarpena.* Aurrekontua eta exekuzio ekonomikoaren laburpena

3 .– Aurrekontua eta exekuzio ekonomikoaren laburpena

- 3.1. Proiektu osoaren exekuzio ekonomikoaren laburpena.
- 3.2. Proiektuan onuradun izan diren erakundeetariko bakoitzari dagozkion kopuruen taula erantsia bete behar da.
- Zeharkako gastuak kopuruen barruan sartuko dira.
- Taula erantsia eredu bat baino ez da. Egokitu egin beharko da proiektu bakoitzeko erakunde onuradunen kopuruaren arabera.

3.1 .– Exekuzio ekonomikoaren deskribapena

3.2 .- Laburpen-taula

Erakunde onuradunaren izena	Proiektuan daukan eginkizuna	Jasotako dirulaguntza	Exekuzioaren jarraipena		
			2019	2020	2021
	Koordinatzailea				
	Partehartzailea				

Lekua eta data

Izpta.: Proiektuaren koordinatzailea